

# BERDINHEZI: HEZKIDETZARAKO LEHEN URRATSAK 2018



[www.egk.eus](http://www.egk.eus)



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua  
—  
Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO


ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	3
<b>2. MARKO JURIDIKOA</b> .....	4
2.1 Curriculuma .....	5
2.2 Material didaktikoa .....	5
2.3 Irakasleak eta zuzendaritza .....	6
<b>3. OINARRI TEORIKOAK</b> .....	7
3.1 Sexu-genero sistema .....	7
3.2 Sexismoa hezkuntzan .....	7
3.3 Hezkidetzaz .....	8
<b>4. METODOLOGIA</b> .....	10
<b>5. EMAITZAK</b> .....	12
5.1 Zer dakite gazteek hezkidetzari buruz? .....	12
5.2 Zeintzuk dira euren bizipenak hezkidetzarekiko? .....	14
5.2.1 Ikastetxeetako langileak .....	17
5.2.2 Materialak .....	19
5.2.3 Espazioak .....	22
5.2.4 Hezkuntza etapak .....	24
<b>6. ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK</b> .....	25
<b>7. APARTEKO MATERIALA</b> .....	27
<b>8. BILBLOGRAFIA</b> .....	28



# 1. SARRERA

Azken urteotan, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz hitz egin izan da. Lortua balego bezala. Egia da emakumeek espazio askotan egoteko aukera eta eskubidea lortu dutela. Hala ere, oraindik, parekidetasun formal besterik ez dugu eta sexuen arteko berdintasun eza alor ezberdinetan islatzen da.

Hezkuntza emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko tresna esanguratsua da. Eta ikasleak tratuan eta orientabidean genero-diskriminazio gabe hezteko hezkidetzak beharrezkoa da.

Zentzu honetan, hezkidetzak hezkuntzan esku hartzeko metodo bat da, nesken eta mutilen gaitasunak eta banakotasunak –sexua gorabehera– aitortzea oinarri duena. Sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak kontuan hartu gabe, pertsona bere osotasunean garatu eta emakumeen aurkako indarkeria eta bereizkeria modu oro arbuiatzen dituen.

Hori dela-eta, euskal gazteriak hezkuntza formalean ematen den hezkidetzari buruz dituen iritzi eta ezagutzak landu nahi izan ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK). Alde batetik, orain arte hezteko baloreak berdintasunean oinarriturikoak izan diren jakiteko; eta, bestetik, etorkizuneko hezkuntza hezkidetzailera lortzeko bidean eman behar diren urratsak zeintzuk izan daitezkeen eztabaidatzeko.

Horretarako, galdetegi bat eta bi eztabaida-talde garatu dira 2018ko urtean zehar eta horietan jasotako erantzunak aztertzen dituen txosten hau atera da. Bertan, lehenik eta behin berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko egindako neurrien marko juridiko eta teoriko bat dago. Jarraian, sexu-genero sistema eta hezkuntza sistema barnebidu eta azaltzen dituen marko teoriko bat aurkitzen da. Ondoren, egindako galdetegi eta eztabaida-taldeetako emaitzak jorratzen dira. Amaitzeko, eta ondorio gisa, eskaera eta proposamen batzuk garatzen dira.

Txostenaren amaieran, egindako galdetegia aurkitzen da eranskin moduan.



## 2. MARKO JURIDIKOA

Hezkuntza da emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta bermatzeko bidean politika gehien dituen alorra. Zentzu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza sisteman hezkidetzaren eredia lortzeko hainbat araudi, gomendio eta plan aurkitzen dira. Ondorengo atal honetan, araudi ezberdin horiei buruz hitz egingo da, modu orokorrean eta modu konkretuan: curriculumean, material didaktikoan eta irakasle eta zuzendaritzan eragiten dutenak.

Eusko Legebiltzarrak onartutako otsailaren 18ko 4/2005 legea da horietako bat. Honek, III. tituluan hezkuntzaren esku-hartze arloan berdintasuna sustatzeko neurriak buruz hitz egiten du eta hezkuntza-ereduak honakoa izan behar lukeela adierazten du:

*“Sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrearik”.*

Baina badaude horiez gain beste neurri asko, ondorengoak kasu:

- Euskal Eskola Publikoaren Legea (1995ko otsailaren 19a).
- Milurteko Aitorpena (2000ko iraila).
- Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurrien Legea (2004ko abenduaren 28a).
- Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (2005ko otsailaren 18a).
- Hezkuntzari Buruzko Lege Organikoa (2006ko maiatzaren 3a).
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eraginkorra lortzeko Lege Organikoa (2007ko martxoaren 22a).
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharren Dekretua (201/2008, abenduak 2a).
- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa (2009 otsailaren 3a).
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (2013ko abenduaren 30a).
- 2013an Hezkuntza Sailak hiru ikasturterako ateratako Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana.
- Hezkuntza Sailak onarturiko Heziberri 2020 Planaren Curriculum dekretuak.

## 2.1 Curriculumua

Otsailaren 18ko 4/2005 legeak, lehenik eta behin, Hezkuntza Administrazioak hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenituko dituela adierazten du, baita ondorengo gaiekiko lanketa egitea ere: etxea, pertsonen zainketa, harreman pertsonalen funtzionamendua, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak.

Bigarrenik, hainbat jakintza arlotan eta curriculumean izan beharreko hezkidetzak-helburuak finkatzen ditu. Jarrian zehazten dira Hezkuntza Administrazioak lege honen arabera bete beharko lituzkeen helburuak:

- a) Emakumei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rola ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c) Beharrezko ezagutzak sartzeko, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla-eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrezko erantzukizunen ardura har dezaten.
- d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ere.

## 2.2 Material didaktikoa

Otsailaren 18ko 4/2005 legeak debekatu egiten du, lehenik eta behin, EAEko ikastetxeetan, sexu batekoa zein besteko pertsonak duintasun gehiago edo gutxiago dutela dioten, sexu-objektuak direla adierazten duten edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatuari garrantzia kentzen dioten testu-liburu edo ikasmaterialak zabaltzea eta erabiltzea.


Zentzu honetan, material didaktikoan legeak berak adierazten dituen hezkidetzako helburuak ageri behar dira eta ezin dute hizkuntza modu sexistan erabili. Irudietan, gainera, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu behar dute material didaktikoek.

## 2.3 Irakasleak eta zuzendaritza

Otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, hezkuntza-sistemako langileek hezkidetzan prestakuntza izan behar dute genero-ikuspegia integratzeko. Horretarako, beharrezko prestakuntza-planak abiatuko ditu eta ordutegian eta antolaketan behar besteko egokitzapena bermatzea ahalbidetuko du.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek hezkidetzaren arloko gaikuntzan behar duten plazetarako beharkizun bereziak txertatuko dituzte.

Behin hezkuntza formalean hezkidetzak bermatzeko dauden legeei erreparatu ondoren, oinarri teorikoetan sakonduko da. Horretarako, sexu-genero sistemarenganako hurbilpen bat, genero eragileen azalpen labur bat, eskoletan ematen den sexismoa, hezkidetzak beraren definizioa eta gaur egun dauden programen deskribapen bat egingo da.



## 3. OINARRI TEORIKOAK

### 3.1 Sexu-genero sistema

Bizi garen gizarte hau, emakumeei eta gizonei ezaugarri bereizgarriak ematen dizkien genero-sistema<sup>1</sup> batean oinarrituta dago eta jaiotzerakoan ezartzen diren organo genitalek ezberdintasun biologikoak, ezaugarri psikologikoak eta jarrerak determinatzen dituztela uste da.

Hala, emakumeak sentikorragoak, xamurragoak eta pinpirinagoak direla uste da; gizonak aldiz ausartagoak, trebeagoak eta independenteagoak. Ezaugarri hauek estereotipo eta rol determinatu batzuei dagozkie, sozializazio prozesu baten bidez sexu bakoitzari ezarriak izan zaizkionak. Izan ere, pertsona guztiek genero-identitateak eraikitzen dituzte jaiotzen diren unetik. Eraikuntza hori eskolako, familiako eta lagunarteko kideen jarrerak ikusiz, ikasiz eta imitatuz barneratzen da.

Genero ezberdintasunaren bereizketa horretan alor, eginkizun eta jarrera batzuk garrantzitsuagoak dira beste batzuk baino. Emakumeei dagozkien alor, eginkizun eta jarrerak esaterako, gutxiago baloratuak daude gizonezkoenak direla uste direnak baino. Eta hau da hain zuzen ere, emakume eta gizonen artean tratu, baldintza eta aukera ezberdintasunak ematearen oinarria (SORKIN, 2017).

### 3.2 Sexismoa hezkuntzan

Eskola sozializazio eragile garrantzitsu bat da pertsonen bizitzan. Ez da bakarra, ezta indartsuena ere, baina bertan ematen den denbora dela-eta pertsonen izaeran, pentsatzeko eran eta jokatzeko eran eragin nabarmena du. Baina nolako sozializazioa burutzen du? Eragiten al du genero-diskriminaziorik? Atal honetan hezkuntzan ematen den sexismoari buruz jardungo da.

Hezkuntza formala ondorengo etapa ezberdinetan egituratzen da: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Erdi edo Goi mailako ikasketak (ikasketa teknikoak eta unibertsitate ikasketak). Horietan, ez dira sexuari loturiko desberdintasun formalik ematen. Hala ere, eskolak gizarteko baloreak euren curriculum eta alor ezberdinetan islatzen dituen neurrian, ezkutuko desberdintasunak (inkontzienteak eta automatikoak izan ohi direnak) erreproduzitzen ditu (Emakunde, 2015).

<sup>1</sup> Emakume eta gizonen arteko botere harremana modu ezberdinetan izendatu izan bada ere, 70eko hamarkadan parekidetasun eza hori azaltzeko patriarkatu kontzeptua sortu zen.

Hezkuntza sisteman, sexismoa Ageriko Curriculumaren<sup>2</sup> bidez eta Ezkutuko Curriculumaren<sup>3</sup> bidez transmititzen da. Ageriko Curriculumean testu liburuek duten diskriminazioa har daiteke adibidetzat. Izan ere, oraindik ere, hauetan agertzen diren irudi eta pertsonaien eraketa androzentrikoa da. Gainera, pertsonaien ereduak mugatuak eta estereotipatuak dira: alde batetik, emakumeak ama, emazte edota alabaren rolean agertzen dira gehienetan; gizonak bestetik, lan ezberdinak egiten azaldu ohi dira. Ezkutuko Curriculumean garatzen den sexismoa, bestalde, irakasleen jarrera eta ikasgela barruko naiz kanpoko jardueren bidez ematen da. Irakasleagoak ikasleei buruz dituen perspektibek eta espektatibek, esaterako, sexismo hori eragingo lukete.

### 3.3 Hezkidetzeta

1970ko hamarkadan Eskola Mistoaren aldeko apustua egin zen eta ordura arte banatuta ikasten zuten mutil eta neskek elkarrekin ikasten hasi ziren. Hala, hainbat aurrerapauso eman ziren: neskek eta mutilak hezkuntza sistemara sartzeko aukera berdintasuna izatea, emakumeek jakintzarako duten eskubidea sozialki onartua izatea, hezkuntza sistemako kudeaketan eta lan esperientzietan emakumeen parte-hartzea egotea eta gizonak emakumeen parte-hartze horretan inplikatzeari (Arastizabal, 2010).

Eskola-eredu honek ordea, muga asko hautsi bazituen ere, ez zuen emakumeen kontrako diskriminazio, indarkeria eta zapalketaren aurkako tresna izatea lortu. Izan ere, Eskola Mistoaren etorrera, ez zen zenbait hausnarketarekin batera eman: hala nola, generoaren sozializazioak zer suposatzen zuen, zer balioetan heziko ziren, ikasgaiak androzentrikoak ote ziren edota emakumeei egozten zitzaizkien rolak nolakoak ziren.

Hezkuntza eredu hori gainditu nahi duen esku-hartze hezitzailea da hezkidetzeta. Izan ere, pertsonen balioen erdigunean berdintasuna oinarri jartzeko du. Nesken eta mutilen gaitasunak eta banakotasunak sexuaren arabera estereotipoak eta rolak kontuan hartu gabe ematen dituen heziketa da.

<sup>2</sup> Estatuak ezartzen duen Curriculumak da, eskola desberdinetako ikasleen hezkuntza maila berdina izan dadin eta gutxienezko minimoak lor daitezkeen. Hala, bertan irakatsi beharreko edukiak, lortu beharreko helburuak eta garatu beharreko ebaluazioak azaltzen dira. Ikastetxe bakoitzak bere egokitzapenak egin ditzakeelarik


<sup>3</sup> Ageriko Curriculumak adierazten ez duen orori egiten dio erreferentzia, inplizituki ematen den gutziari. Esate baterako irakasleek ikastetxean jokatzen duten modua.



Emakunderen (2015) arabera, Euskal hezkuntza-sistemako hezkidetzaren helburuak ondorengoak dira:

- Norberaren autonomia eta pertsona arteko harreman positiboak sustatzeko neska-mutilen hezkuntza integrala lortzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartuko dion eta hura eraziko duen hezkuntza bermatzea. Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, jardun, ikasi eta erabakitzeko.
- Esparru publikoan nahiz pribatuan gizon-emakumeak dituzten balioen aldaketarako hezkuntza eskaintzea.
- Modu orokor zein pertsonalean, bizikidetzarazoak eta desadostasunak indarkeriarik gabe gainditzen heziko duen hezkuntza ahalbidetzea.
- Maskulinitate hegemonikoaren alternatibetan oinarritutako bizikidetzaredu berriak garatzeko hezkuntza sustatzea.
- Ikasleak sozializatzen diren generorolen azterketak eta giza eskubideen alternatibaren azterketak bermatuko dituen hezkuntza bihurtzea.

Behin hezkidetzak zer den azalduta, ondorengo atalean gaur egun EAEn indarrean dauden programei buruzko hurbilpen bat egingo da.



## 4. METODOLOGIA

Txosten hau 2018ko martxotik azarora bitartean burutu da. Horretarako, metodologia kualitatiboaz eta kuantitatiboaz baliatu nahi izan da. Alde batetik, metodologia kuantitatiboa erabili da gazteei buruzko informazio bildu, konparatu eta egon daitezkeen erlazioak ezagutzeko; bestetik, metodologia kualitatiboa erabili da errealitatearen ikuspegi anitzak lortzeko eta horien zergatia ulertzeko (Colás eta Buendía, 1995).

Hasieran aipatu bezala, txosten honen helburua euskal gazteriak hezkuntza formalean ematen den hezkidetzari buruz duen iritzi eta ezagutzak jaso eta biltzea izan da eta honako tresna metodologikoak erabili dira helburu hori lortzeko: berrikuspen bibliografikoa, galdetegia eta bi eztabaida-talde. Ondoren azalduko dira hurrenez hurren.

### Berrikuspen bibliografikoa

Txosten honen lehendabiziko urratsa gaiaren norabidea zehaztea izan da, gidoi bat sortzeko asmoz. Horretarako, gaiarekin zerikusia duten hainbat dokumenturen lanketa egin da, marko teoriko bat osatzeko eta ideia printzipalak sakontzeko. Bai eta gaiarekiko dauden hutsuneak identifikatzeko ere.


### Galdetegia

Galdetegia hainbat galderen bitartez informazioa jasotzeko teknika da eta lagin bat aztertuz biztanleriaren informazio esanguratsua lortu daiteke. Hau, iritzi, portaera, jarrera edo joeren zenbaketa adierazgarria baita (Juaristi, 2003).


Hori dela eta, 56 galderez osatutako galdetegia diseinatu zen, hiru atal nagusitan banatzen zena: gazteek dituzten ezagutzak, haien bizipen pertsonalak eta eskaera eta proposamenak. Profilaria buruzko sei galdera, 21 galdera itxi, 23 galdera ireki, aukera anitzeko hiru galdera eta hiru ebaluazio-galdera egon ziren. Bi hizkuntzatan betetzeko aukera egon zen eta galdera gehienak erantzutea derrigorrezkoa zen.

2018ko martxoaren 26an argitaratu zen eta 2018ko maiatzaren 31 arte jaso ziren erantzunak. Mezu elektronikoz bidez galdetegiari buruzko informazioa zabaltzeko eta sare sozialetan honen gaineko publizitatea egin zen.

182 erantzun jaso ziren eta ondorengo grafikoetan adierazten da erantzun zutenen adin tartea eta genero identitatea.



GRAFIKOA 1: Galdetegia erantzun dutenen adin Tartea.



GRAFIKOA 2: Galdetegia erantzun dutenen identitatea.

Erantzun dutenen %80,8ak D ereduan ikasi du, %11ak A ereduan eta %8,2ak B ereduan. Horietatik %52,8 Gipuzkoan bizi da, %39 Bizkaian eta %8,2 Araban.

### Eztabaida-taldea

Eztabaida-taldea informazioa biltzeko moderatzailea eta hainbat pertsonen artean ematen den eztabaida neurtua da. Honen helburua gai zehatz bati buruzko puntu garrantzitsuenak ezagutzea, taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak ikertzea eta desadostasunak aztertzea da. Guztia moderatzaile batek gidatzen duelarik (Juaristi, 2003).

Kasu honetan, bi eztabaida-talde egin ziren galdetegiko eskema berdina erabiliz. Hori dela eta, galdetegian ez bezala, dinamika honetarako 18-30 urte bitarteko irakasleak bilatu ziren. Izan ere, hezkuntza formalean izan duten esperientzia gertutik kontatzeko aukera eman zezakeela ikusi zen.

Modu honetan, 2018ko ekainaren 11an egin zen lehen eztabaida taldea. Zazpi pertsonak parte hartu zuten eta bi orduko saioa izan zen. Bigarren eztabaida taldea, 2018ko uztailaren 18an egin zen Durangon eta bost pertsonak hartu zuten parte. Saioaren iraupena ere, bi ordukoa izan zen. Bi kasuetan eztabaidatutakoa grabatu zen, bildutako informazioa amaierako txostenean erabiltzeko.

Eztabaidarako bost ariketa ezberdin egin ziren: hezkuntza sistema formalean ematen den hezkidetzari buruzko lanketa, hezkidetzako programei buruzko ezagutzen identifikazioa, hezkuntzako etapa ezberdinen azterketa eta hezkidetzari buruzko proposamenen hausnarketa. Amaitzeko saioaren itxiera ariketa egin zen.


Eztabaida taldeetatik eta galdetegitik ateratako datuek ez dute gizartearen isla izan nahi. Txosten honen helburua ez da ondorio orokorrak ateratzea, baizik eta bildu diren erantzunen sakoneko azterketa bat egitea. Honek etorkizunari begira hezkidetzari buruz aztertzen jarraitzeko balio dezan.

## 5. EMAITZAK

Ondorengo atalean galdetegian eta eztabaida taldeetan jasotako erantzunen bilketa eta azterketa egin da. Alde batetik hezkidetzari buruz duten ezagutzei buruz hitz egingo da, ondoren, hezkidetzarekiko dituzten bizipenak zeintzuk diren azalduko dira eta azkenik irakasle eta zuzendaritza, material didaktiko eta espazioen gainean dituzten hausnarketak landuko dira.

### 5.1 Zer dakite gazteek hezkidetzari buruz?

1. grafikoan ikusi daitekeen bezala, galdetegia erantzun dutenen gehiengoak badaki Hezkidetzaz zer den. Hala ere, esan beharra dago %31,3k ez duela honen ezagutzarik eta ehunekoak altua dela. Definizioa ematerako orduan, galdetegia erantzun duten gazteek honako termino hauek errepikatu dituzte: berdintasuna, generoa, sexua, feminismoa eta balorea. Hona hemen, jasotako hainbat definizio:



GRAFIKOA 3: Ba al dakizu zer den hezkidetzaz?

*“Gizarte heteropatriarkalean ematen den hezkuntza sexistak deseraikitzea eta pertsona guztientzako aukera berdintasuna eskaintzea helburu duen hezkuntza praktika”.*

*“Trebetasunak lantzen dituzten hezkuntza programak, genero-bereizketarik gabe, neska-mutilek gizartean aukera berdina izan ditzaten”.*

*“Nesken eta mutilen arteko berdintasuna oinarritzat harturik gazteak hezteak, gizartean ezarriturik dauden gizonezko eta emakumezkoen rola albo batera utziz”.*

Eztabaida-taldeetan berriz, hezkidetzaz jada eufemismo bat bilakatu dela adierazi dute batzuk. Zentzu honetan, gazteek argudiatutakoaren arabera, hezkidetzaz gauza asko definitzeko erabiltzen da eta oso zaila egiten zaie termino beraren definizioa zehatza egitea. Hori dela-eta, hezkidetzaz baino “pedagogia feministetaz” hitz egitea planteatzen dute.

Beste batzuk uste dute hezkidetzaz zer den jakin arren, errealitatean ez dela jarrera hezkidetzaille batekin jokatzen. Izan ere, jarrera hezkidetzaille bat izateak une oro berdintasunean oinarrituko den pentsamendu eta portaerekin koherente jokatzea esan nahi du. Eta eztabaida-taldekoen ustez egun gizartean orokorrean falta den jarrera bat da, hezitzaileena barne.

Hala ere, eztabaida-taldeetako kideek uste dute, hezkuntza alorra edota mugimendu feministetan murgilduta ez dauden gazte askorentzako ‘Hezkidetzaz’ hitza arrotza izan daitekeela erabat, 1. grafikoan adierazi den ehuneko horrentzat, esaterako. Gainera, azaldu dute ez dutela txosten, kanpaina edota inongo erreferentzia publikorik ikusi Hezkidetzaz hitza erabili duenik.

*“Nik bi urte jardun ditut testuliburuak itzultzen eta eskolako material estraz asko eta aparteko proiektuak; uste dut ez dutela inoiz hezkidetzaz hitza itzuli”.*

Hezkidetzaz lantzen duten proiektuei dagokionean, galdetegia erantzun duten gazteen %69,2ak ez du gaur egun EAEn abian dauden proiektuen ezagutzarik. Bestalde, ezagutzen dutela erantzun dutenen artean, batzuk modu orokorrean aipatu dituzte proiektuak. Beste batzuk aldiz, izen zehatzak eman dituzte.

Ondorengo taulan izen zehatzak eman dituztenen erantzunak ageri dira. Batzuk asmatu dute emandako erantzunarekin, beste batzuen kasuan, adierazi dituztenak ez dira egokitzen Hezkidetzaren gaiari. Azkenik, badira hezkidetzaz lantzen duten elkarteak izendatu dituzten arren euren hezkidetzaren proiektua zehaztu ez dutenak<sup>4</sup>.

URTXINTXA	X	BELDUR BARIK	✓
EHUREN HEZKIDETZAREN ALDE BUSTI	✓	KIVA	X
EMAGIN	X	ARMENAITZ KOOPERATIVA	X
ACCION DE COEDUCACIÓN DE LA ONG ALBOAN	✓	DPTO. COEDUCACIÓN DE LA ESCUELA DE TIEMPO LIBRE DE EDE	X
FAKTORIA LILA	X	ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ	X
TÚ A EUSKADI Y YO A CATALUÑA	X	EMAKUNDE	X
NAHIKO	✓	TRATU ONEN PROGRAMAK	X

TAULA 1: Galdetegiko erantzunetan adierazi dituzten hezkidetzazko programak.

4 7. puntuan proiektuei buruzko informazio gehiago ageri da.

Eztabaida-taldean parte-hartu duten gazteen gehiengoak, galdetegia erantzun duten gazteak bezala, ez dituzte hezkidetzara lantzen duten proiekturik ezagutzen. Horren arrazoi nagusia, batzuen arabera, hezkuntza esparruan egiten diren lanketak komunitatera<sup>5</sup> ez sozializatzea dela da.

Beste batzuen ustez, eta lehen aipatutakoa azpimarratuz, hezkidetzara hitza bera jende askorentzat ezezaguna den neurrian (hezkuntza alorra edota mugimendu feministetan murgilduta ez dauden gazte askorentzat), zaila egiten da termino horrekin loturiko programak identifikatzea.

Legeari dagokionean, galdetegia erantzun dutenen %79,12ak ez du ezagutzen estatu mailan zein autonomia mailan hezkidetzara bermatzen duen legerik. Galdetegia erantzun duten beste batzuk, bestalde, legeak egon badaudela uste duten arren, ez dute zehazki legerik aipatu.

Eztabaida-taldeko gazteek orokorrean ez dute legerik ezagutzen. Gainera, hauen iritziz, legeak beharrezkoak diren arren (printzipio eta balore batzuk sostengatzen dituen marko bat sortzen dutelako), ez dira nahikoa. Alde batetik, legearekin batera diru laguntzak eta programak egon behar direlako (eta sentsazioa dute ez daudela); eta bestetik, jarrerak aldaraziko dituzten legeak gizartearen eraldaketekin batera joan behar direlako.


## 5.2 Zeintzuk dira euren bizipenak hezkidetzarekiko?

Ondorengo atal honetan, ibilbide akademikoan bizitako esperientziak bildu nahi izan dira. Horretarako, hezkuntza sistemaren baitan ematen den genero-dikotomia izan da aztertu zen lehenengo puntua. Hala, galdetegia erantzun dutenen arabera, %67,6ak uste du hezkuntza sistema genero-dikotomietan<sup>6</sup> oinarrituta dagoela, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala.

<sup>5</sup> Eztabaida-taldeko kideen arabera, gaur egun hezkuntza esparruan egiten dena asko mugatzen da hezkuntza esparrura, familian egiten dena familiara eta gizarte esparru anitzetan egiten dena esparru horietara. Ondorioz, gizarte eta hezkuntza esparrua aldi berean eraldatzeko ezinbestekoa da hezkuntzako ezagutzak komunitatera zabaltzea.

<sup>6</sup> Mendebaldeko pentsamoldea kategoriatik dikotomikotik errotuta dago. Ondorengoak dira sexualitateari buruzko diskurtsoetan ematen diren kategoriatik dikotomiatik: dikotomia anatomikoa (arra/emea), genero-dikotomia (gizon/emakume) eta genero-estereotipoak (maskulinoa/femeninoa).

Hezkuntza sistema genero-dikotomietan oinarrituta dagoela uste dutenen arabera, hezkuntza gizartearen isla den heinean, gizartearen ereduak erreproduzitzen ditu. Hona hemen, hainbat erantzun:



GRAFIKOA 4: Hezkuntza sistema neska-mutil edo femenino-maskulino dikotomietan oinarrituta dagoela esango zenuke?

*“Gure gizartea dikotomia horretan oinarritzen bada, ezinezkoa izango da hezkuntza sistema dikotomia horretatik aldentzea”.*

*“Generoaren kultur sistemak dena estaltzen du eta arlo guztietara hedatzen da, baita hezkuntzara ere. Hasteko, ez da ia emakumerik aipatzen testu-liburuetan, beraz, neska-mutilek ez daukate erreferente femeninorik, eta gizonen kontatutako historia bakar bat jasotzen dute. Bestalde, jolastikoetako espazioen erabilerak ere hor daude. Eta, bukatzeko, goiko mailetan neska-mutilei aukeratu beharreko karrera edo ikasketen inguruan ematen zaien orientazioa, askotan, sexuaren araberrakoa izaten da, eta ez gaitasun edo interesen araberrakoa”.*

*“Batetik, curriculumean lantzen diren ezagutzak, kontzeptu konkretuak, horretan oinarrituak daude eta beste bizi formak ez dira azaltzen, lantzen, ezagutarazten (emakumeen historia, emakumeen ikuspegia, oso murrizta da); bestetik, curriculum ezkutuari dagokionez, esango nuke jaioberriak direnetik sailkatzen direla haurrak dikotomia horren barruan, aurrez ezarria dagoen generoa esleituz. Ondorioz, irakaslearengan horren araberrako espektatibak eraikitzen dira, haurrarekiko praktikan aukera berdintasuna bermatu ezin delarik”.*

*“Gurea bezalako gizarte eta kultura baten barruan (dikotomia horretan oinarritua) dauden sistemak ez daude horretatik kanpo. Planak diseinatu daitezke, baina ez dago baliabiderik horiek gauzatzeko”.*

Idea hau defendatu dutenek, dikotomia hori espazioen kudeaketan (komunak, aldagelak, jolastokia), ikasgaien edukian, hizkuntzan, irakasleen roletan... ematen dela diote. Hala ere, hau zuzenean baino zeharka oinarrituta dagoela uste dute askok.

*“Gizakion baitan egon daiteken dikotomia den heinean, parte egiten dugun edozein esparrutara transzenditu dezake, baina hezkuntza sistema ‘berez’ dikotomia honetan oinarritu eta bultzatzen duenik ez nuke esango”.*

Eztabaida-taldeko partaide guztiek ere, hezkuntza sistema neska-mutil eta/edo femenino-maskulino dikotomietan oinarrituta dagoela uste dute. Dikotomia hau azaltzeko garapen eskalaren<sup>7</sup> adibide bat eman dute, izan ere, hiru urteko gelan garapen eskala pasatzean ea neska edo mutila den galdetu behar izaten dute.

Eztabaida-taldean gainera, beste ideia garrantzitsu bat atera zen. Euren iritziz, neska-mutilen dikotomia hori egoteaz gain, hezkuntza sistemaren gabezia jakintza maskulinoan aurkitzen dela uste dute. Hau da, hezkuntza sisteman erreproduzitzen den jakintza gizonetatik gizonentzako eginda dagoela. Hori dela-eta, planteatzen den galdera honakoa da: prestatuta dago hezkuntza sistema mistoa izateko? Prestatuta dago hezkuntza sistema berdintasunarekiko jarrera egokiak transmititzeko neskei, mutilei zein beste edozein identitateei, kontuan izanik jakintza oraindik maskulinoa eta androzentrikoa dela?

Badaude, ordea, “denei hezkuntza berdina eman digutela” uste dutenak ere. Hala, posizionamendu hau dutenek uste dute hezkuntza sistemak ez duela diskriminaziorik egiten bi sexuen artean. Bizi izan duten esperientziari dagokionez ezberdintasun hori ez dutelako nabaritu izan eta uste dutelako gaur egungo eskoletan neskei eta mutilei hezkuntza berdina eskaintzen zaiela. Iritzi hau uste dutenak, 2. grafikoan azaltzen den moduan, galdetegia osatu dutenen %32,4a dira.

Uste hori berdintasunaren ideia orokortuari egon daiteke lotua. Emakunderen (2005) arabera, ideia honi loturiko pentsamendua dutenak uste dute berdintasun-maila handiak lortu direla. Zentzu honetan, neska eta mutilen arteko diskriminazioa gaindituta dagoen uste dute eta hori hezkuntzako esparruetan duten ideian ere isla daiteke.

<sup>7</sup> Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren lehen faseari jarraituz, Haur Hezkuntzako tutoreek Garapenaren Ohiko Zaintza egiten dute irakasle aholkularien laguntzarekin batera. Zaintza hori ezartzeko, Haurren Garapena Behatzeko Eskalaz (HGBE) baliatzen dira eta ikasleen bilakaeraren erritmo eta ereduaren arabera behaketa-eskalak prestatzen dituzte. Garapenean alerta-zantzuak identifikatzeko eta garapen goiztiarra izan dezaketen ikasleen garapen-adierazleak ere aintzat hartzeko (Eusko Jaurlaritzak, 2015).



### 5.2.1 Ikastetxeetako langileak

Galdetegian irakasle eta zuzendaritzak hezkuntzan jokatzen duten paperari buruz galdetu denean, erantzun dutenen gehiengoak uste du eskola haur, nerabe eta gazteentzat ikasketa esparru eta sozializazio bide nagusienetako bat den heinean, irakasleen eta zuzendaritzaren jarduera eta inplikazioa ezinbestekoak direla. Beraiek baitira, gehiengoaren ustez “eredu” eta “erreferente” nagusiak. Aldi berean, gainera, “jokabideak moztu, zuzendu edo sustatzeko” boterea dutela azpimarratu duenik ere bada.

*“Irakaslegoa eredu izan behar delako. Haiek transmitituko dituzte ezagutzak heltzear dauden ikasleei eta erabiltzen dituzten adibide eta erreferentziak gazteek eredutzat hartuko dituzte askotan”.*

*“Neska-mutilek erreferente bat izan behar dute, arlo horretan dituzten gabezia edo akatsak ikusarazteko. Ez badizute inoiz esaten ezer zalantzan jartzeko, ez duzu egiten”.*

*“Bai, irakasleak hurrengan duen eraginagatik eta hauekin igarotako denboragatik hurren lehen urteetan eta zuzendaritzak hezkidetzan oinarritutako ikastetxeko proiektua osatzeko duen ahalmenagatik. Honek, ikastetxea osorik aldatzeko ahalmena dauka: materiala (ipuinak, irudiak...), instalazioak (komunak, aldagelak...), hizkuntza (kartel informatiboak...), etab”.*

Baina, erantzun duten pertsonen arabera, inplikazio mota hau irakasle bakoitzaren arabera da eta modu orokorrean baino ez da ematen. Hala, ogibide askotan pasatzen den bezala, jarduna norberaren identitatearen arabera denez, irakasleen artean ere denetik dagoela diote. Hala ere, erantzun dutenen gehiengoaren arabera, gero eta gehiago inplikatzeko dira eta irakasle gazteen artean aldaketa nabaria dagoela adierazi dute.


Bestalde, irakasleena baino, ardura sistema berarena dela azpimarratu nahi izan dute batzuk.

*“Azken finean nahiz eta irakasle bat hezkidetzaren sustatzaile izan zuzendaritzak ez badu hori sustatzen gainontzeko irakasleekin gauzak ez dira asko aldatuko. Eraginkorra izateko sistema da hezkidetzaren sustatu behar duena”.*

*“Irakasleena baino, hezkuntza komunitate osoaren ardura dela uste dut, irakasle eta zuzendariak barne”.*

Eztabaida-taldean gainera, azpimarratu da irakasleei eraldatzaileak izateko pisu handiegia ematen zaiela eta horrek kontrako efektua eragiten duela. Hau da, eztabaida-taldeko kide askoren arabera, eskolan urte osoan zehar pasatzen den denbora urria den neurrian, eraldaketa gizartetik ematea ere ezinbestekoa dela.

Zentzu horretan, berdintasunean hezteko irakaslegoak kontuan hartu behar lituzkeen hainbat faktore proposatu ziren, galdetegia osatzen zuten pertsonen horietatik batzuk aukera zitzaten. Ondoko grafikoan ikus daitezke egin zituzten aukeraketak.



GRAFIKOA 5: berdintasunean hezteko irakaslegoak kontuan hartu beharko lituzkeen faktoreak.

Faktore horiez gain, galdetegia erantzun zutenek berdintasunean hezteko irakaslegoak kontuan izan beharko lituzkeen beste hainbat faktore planteatu zituzten:

- Ikasleek hezkidetzarekiko izan ditzaketen jarrera desegokiak.
- Diskriminazio egoerak eta ekintzak identifikatzeko gaitasuna.
- Aniztasun kulturala, taldean ematen diren sozializazio ereduak eta harremanak.

- Ikasle bakoitzaren baldintza fisiko eta psikologikoari zentratuta eraikitzen diren harremanak.
- Ikasleei zuzenean ez baina zeharka eragiten dizkieten egoerak (irakasleen artean nola jokatzeko duten, nola hitz egiten duten...).
- Adimen anitzak (emozionala esaterako) eta pertsona bakoitzean gertatzen diren prozesuak eta hauek eraldatzeko tresnak.
- Ikastetxearen testuinguruaren azterketa, generoak dakartzan estereotipoak (mutil eta neskekiko espektatibak/aurreiritziak).
- Espazioaren banaketa gela eta jolastokietan.
- Feminismoaren aldarrikapenak eta ikuspegi feminista.
- Familien eragina, lengoia (ez-hitzezko komunikazioa..).

### 5.2.2 Materialak

Galdetegia erantzun duen gehiengoaren arabera (%60,4) hezkuntza sistema formaleko material didaktikoetan ez dira emakumeei dagozkien ekarpenak azaltzen eta beste %39,6aren arabera bai agertzen dira. Eztabaida-taldeetan berriz, ikas materialetan emandako aurrerapausoak azpimarratu dituzte lehenik eta behin. Zentzu honetan, feminismoak azken urteetan izan duen bultzada dela-eta, materialei dagokien birformulazio bat eman dela adierazi dute. Hala ere, hutsune hori oraindik egon badagoela esan dute.

Esate baterako, eta eztabaida-taldean sortutako adibide bati jarraiki, matematikako kasuan emakumeek historian zehar ekarpen asko egin dituztela adierazi da, ordea, ekarpen horiek biltzen dituzten materialak ezezagunak diren heinean ez dira erabiltzen. Fenomeno hau, zientzien izaera androzentrikoarekin<sup>8</sup> du lotura.

Emakumeen ekarpenak zeintzuk diren aztertzeaz gain, oso garrantzitsua da emakumeak sinbolikoki nola irudikatzen diren ikertzea. Zein da euren papera liburuetan? Zein euren ogibidea? Horren adibideak bildu nahi izan dira galdetegian, eta honako hauek dira jasotako batzuk:

*“Lan rola askotan indarra behar badute gizonezkoak dira protagonista, emakumea askotan agertzen da etxeko lanak egiten, sukaldatzen edo zaintza lanetan. Ingeleseko edo hizkuntzetako testu liburuetan bereziki nabarmena dela esango nuke. Emozioak agertzen badira, emakumeak dira negar egiten dutenak, gizonak haserre daudenak”.*

<sup>8</sup> Zientziaren izaera androzentrikoak emakumeak baztertu ditu historian zehar eta horrek bere ondorioak izan ditu. Izan ere, testu liburuetan ez dira euren ekarpenak azaltzen. Hala ere, historian zehar emakumeek egindako ekarpenak milaka izan dira (Sorkin, 2017).

*“Lanbideak ikasterako orduan, enpresaria, suhiltzailea edota polizia beti gizonezkoa izango da: garbitzailea edota irakaslea, berriz, emakumea”.*

*“Matematikarien kasuan adibidez denak dira gizonak. Emakumeak soilik kontsumoa (gauzak erosi, janaria, arropa...) ematen den kasuetan agertzen dira. Edota historian garrantzia izan duten emakumeen izenik ez dute ematen askotan, abizena bakarrik. Gizonak, ordea, denok ezagutzen ditugu”.*

*““Bete esaldia: Amak pastelak sukaldatzen dituen bitartean, aitak.....” edo “Juan tiene tres coches y Ana 5 muñecas. ¿cuántos juguetes tienen entre los dos?” Este tipo de ejemplos junto con ilustraciones de niñas vestidas de rosa con vestido y niños de azul...”.*

*“Giza gorputzaren inguruan lan egiten denean, gorputzak ez dira anitzak. Jendarteari erreferentzia egiten dioten argazkietan, “persona normalizatuak” dira”.*

**Bestalde, emakume edo gizonezkoen gorputzen erabilera sexistari dagokionez, hauek dira jasotako hainbat iritzi:**

*“Testu liburuetako irudiak ez dira emakumeen gorputzen errealitatera egokitzen, guztiz estereotipatuak dira”.*

*“Emakume edo gizonezkoen genitalen edota emakumezkoen bularren irudi errealak agertzea saihesten da (zakil luze eta ilerik edota tolesik gabeak, bular borobil eta tamaina eta itxura perfektukoak...)”.*

*“Bai, emakumeen gorputza gizonen plazererako bakarrik izango balitz bezala irudikatzen da, oso sexualizatu”.*

**%66,5aren arabera, emakume eta gizonezkoen ereduak ikasgaietako materialetan ez dira proportzioan islatzen. Eta diskriminazio hori, batez ere, ondorengo ikasgaietan ematen dela ikusi da: historian, zientzietan, literaturan, matematikan, erlijioan... Hau da, laburbilduz, erantzunen arabera, zientzia nagusietan edota maskulinoetako ikasgaietan ematen da desoreka hori batez ere.**

Ibilbide akademikoan nabarmendu diren emakumei buruz ere galdetu da, ea norbera erreferentziatzeko emakumeak izendatzeko gai izango litzatekeen jakiteko. Marie Curie izan da askoren erantzuna eta bereziki nabarmendu da bere izena. Era berean, honako emakume hauek aipatu dira:

**Frida Kahlo**, Cleopatra, Juana de Arco, Agatha Christie, **Simone de Beauvoir**, Gioconda Belli, Jane Austen, Mary Wollstonecraft, Florence Nightingale, Ane Unibaso, Carmen Martin Gaité, **Benazir Bhutto**, Silvia Federici, Lorea Agirre, **Mariasun Landa**, Berthe Morisot, Rosalind Franklin, La Pasionaria, **Nerea Ibarzabal**, María Montessori, Elbira Zipitria, María Teresa de Calcuta, Margaret Thatcher, Paula Scher, **Jessica Walsh**, Judith Butler, Martha Nussbaum, **Adela Cortina**, Victoria Camps, Eileen Gray, Lilly Reich, Jane Drew, Lina Bo Bardi, Mairon Mahony, Emmi Pikler, Dolores Ibárruri, Mary Shelley, **Virginia Woolf**, Gemma Urteaga, Amelia Barquín, **Maialen Lujanbio**, Angela Davis, Mary Richmond, Christine de Pizan, Hannah Arendt, **Clara Campoamor**, Mònica Guxens, Rafaela Ybarra, Virginie Despentes, Diana J. Torres, Concepción Arenal, Emilia Pardo, Catalina de Médici, Uxue Alberdi, **Isabel la Católica**, Jone Miren Hernandez, Margaret Bullen, Rosalía de Castro...



Frida Kahlo



Simone de Beauvoir



Mariasun Landa



Benazir Bhutto



Jessica Walsh



Clara Campoamor



Maialen Lujanbio



Virginia Woolf



Adela Cortina




Nerea Ibarzabal



Isabel la Católica


Azkenik, aipatu gehiengoaren (%64,3) arabera ez dela emakumeek eginiko testuen irakurketarik aipatzen.




GRAFIKOA 6: Emakumeek eginiko testuen irakurketarik egiten al da?

### 5.2.3 Espazioak

Galdetegia erantzun dutenen gehiengoaren arabera (%67) neskek eta mutilek duten jolastokien erabilera ezberdina da, eta zentzu honetan, gehiengoak pentsatzen du (%64,8) eskolako jolastokian eta jolasteko eremuetan ez dela berdintasunezko banaketa bat ematen.



GRAFIKOA 7: neskek eta mutilek duten jolastokiaren erabilera desberdina al da?



GRAFIKOA 8: Eskolako jolastokian eta jolasteko eremuetan espazioaren berdintasunezko banaketa ematen al da?

Hauek izan dira bildu diren hausnarketetariko batzuk:

“Zaletasunen arabera, baina, orokorrean, mutilek kirola egiten dute; eta neskek hizketan egoten dira, edo liburutegira joaten dira. Neskaren batek futbolearen aritu nahi badu, ez dago arazorik, baina askotan ez dute egiten, esango dietenaren beldurratik. Ikastetxeetatik kanpo, neskei soilik zuzendutako jarduerak direnean, bai jokatzen dute futbolearen, esaterako”.

“Espazio zabalagoetan mutilak daude: futbol zelaia, saskibaloia zelaia... Eta askotan txokoan neskek. Edo neskaren bat mutilekin ere jolasten, baina espazioan bakarrik emakumeak ez”.

“Neskek borobilean eserita egoten dira, izkina batean. Txikiak badira, panpinekin jolasten dira; nagusiagoak, hizketan egoten dira. Mutilek hartzen dute espaziorik handiena”.

“Mutilek oro har kirolak praktikatzen dituzte, futbola, saskibaloia (neskak ere aritzen dira saskibaloian), pilotan... Neskek oro har jolastu egiten dute sokarekin, lurrean marraztutako jokoetan... Hala ere, Lehen hezkuntzako lehenengo urteetan oraindik neska eta mutilek elkarrekin jolasten dute gehiago eta jolas antzekoagoetara”.

*“Mutil gehienak futbolean; neskak hitzezko jolasetan, kolunpioetan, korrika, saltoka, saskibaloian, patinatzen, mozorrotzen... Futbolean aritzen ez diren mutilak (oso gutxi) neskekin egoten dira, jolas horietan. Neska batzuk (oso gutxi) futbolean aritzen dira. Hala ere, adin batetik aurrera, batzuetan neskei ez zaie aukerarik ematen entrenatzen jarraitzeko. Mutilak futbolean edota beste jarduera fisiko batzuetan aritzen dira eta neskak berriketan”.*

Eztabaida-taldeetan, lehenik eta behin, espazioari garrantzia eman nahi izan zioten. Izan ere, ikasleen denbora libreagoatzeko eremua den neurrian, inportantea iruditu zitzaizen honen egiturak nolakoa izan beharko lukeen hausnartzea. Galdetegiko gehiengoak bezala, espazio zabala gizonek hartzen dutela uste dute.

Bada ordea, eztabaida-taldean ateratako ideia nagusi bat: espazioa gizonek hartzera eramaten duten faktore esanguratsuenetako bat futbolak hartzen duen protagonismoa da. Eztabaida-taldeko askoren ustez jolastokian futbol zelaia egoteak erabat baldintzatzen du ikasleen jarduna, mutilek erdigunea hartzen dutelarik.

Galdetegiko gazteek ere, futbolean jarri dute fokua. Hona hemen hainbat iritzi:

*“Emandako espazioa eta materiala, esaterako, jolastoki gehienetan futbol zelaia eta saskibaloia kantxa daude, baina ez bestelako materialik edo zelairik”.*


*“Espazioaren banaketak berak asko baldintzatzen du, kontuan edukita patioaren punta bakoitzean porteria bat dagoela”.*

*“Baloiak, patioaren egitura arkitektonikoak eta ikastetxeak emandako egituraketak, ikastetxeko filosofiak, irakasleen jardunak eta ikasleen jardunak”.*

Azkenik, azpimarratu behar da, askoren ustez espazioa ez dela arazoa izaten sarri. Honi ematen zaion erabilera baizik. Hau da, espazioa edozein dela ere, jarrera hezkidetzaila izatea da garrantzitsua.

### 5.2.4 Hezkuntza etapak

Ondorengo atalean, hezkuntza sisteman hezkidetzako etapa bakoitzean nola islatzen den eta hori gazteek nola bizi duten bildu da. Hala, galdetegia erantzun duen gehiengoak uste du hezkidetzako hutsune handienak Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen direla. Ondorengo grafikoan ikus daiteke.



GRAFIKOA 9: Hutsune nabarmenenak dauden hezkuntza etapak.

Eztabaida-taldeetan ere etapa horiek nabarmendu dira bereziki eta uste da etapa horietan landu beharko litzatekeela hezkidetzako gehien. Urte horietan biltzen baita eurentzat jakintza gehien.

Bereziki Lehen Hezkuntzan landu behar den arren, hezkuntzako etapa guztietan kontuan izan beharreko gai bat da hezkidetzako eztabaidatutako araberak. Izan ere, zeharkako konpetentzia den heinean, lanketa anitzak egin daitezkeela diote. Haur hezkuntzan esaterako, ipuinen erabilera handia egiten denez, beraien berrikuspen bat eta berdintasunean oinarritutako materiala ezarri beharko litzateke; nerabezaroan harreman afektibo-sexualak lantzean, maitasun erromantikoa landu; unibertsitaterako pausua egin behar den etapan, lanbideen orientazioa sexista den edo ez aztertu... Zentzu honetan, Emakundek (2005) dio hezkidetzaren aplikazio maila ezberdina izan behar dela etapa bakoitzean, hau da, hezkidetzako joratzeko moduak eta helburuak ezberdinduz.



## 6. ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK

Behin datuen analisia egin eta gero, ondorengo atalean gazteek Hezkidetza bermatzeko egin dituzten hainbat eskaera eta proposamen jaso dira.

### • Formazioa

Bildutako proposamen nagusienetako bat formazio gehiago sortzearena izan da, hezkidetzari buruzko ezagutza teorikoak sortzeko, eztabaidak sustatzeko eta edukiak sakontzeko. Horretarako, hasteko, unibertsitatean, maila orokorrean genero-ikaske-  
te buruzko ezagutzen lanketa bultzatu beharko litzatekeela uste da. Maila zehatzago batean, etorkizunean, hezkuntza formalean hezitzaile izango direnen formakuntze-  
tan (Haur eta Lehen hezkuntzako graduetan, Pedagogiako graduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakas-  
kuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterretan...) hezkidetzari buruz formatu beharko litzatekeela uste da.

Bestalde, ikastetxeetan irakasleak eta zuzendaritza berdintasunean eta feminismoan formatzeko ikastaroak eskaini beharko liratekeela uste da. Alde batetik, euren jardunean genero ikuspegia txerta dezaten, eta, bestetik, jarrera hezkidetzailleak izateko.

### • Hezkidetza ezagutaraztea

‘Hezkidetza’ hitza gizarteratzea eta beronen esanahia zein den zehaztea proposatzen da. Lehenik eta behin, jende askorentzat kontzeptu hau erabat arrotza delako eta beharrezkoa delako gizarteko zenbait esparrutara hitza beraren zabalpena egitea. Batez ere, hezkuntzako eta feminismoa esparruetan ez dabilzan gazte horiengan iristeko eta imajinario kolektibo bat sortzeko.

Bestalde, beste askorentzat ‘Hezkidetza’ arrotza ez den kontzeptu bat izan arren, gaur egun oraindik ere zaila egiten da definitzea. Hortaz, garrantzitsua dela uste da honen definizio eta lanketa bat egitea.

Lanketa horietaz gain, irakaslegoaren artean hezkidetza-esparruetan ematen diren jarrerei buruz hausnartzeko eta lantzeko espazio berriak sortzea interesgarria izan daitekeela uste da. Ikastetxe ezberdinetako esperientziak konpartitzeko eta lanketa berriak egiteko.

### • Komunitateko lanketak egitea

Aurreko puntuan adierazi bezala, eta gizarteratzeko ildo jarraituz, berdintasunean heztearekiko dagoen arduraren gizartera ere helaraztea ezinbestekotzat jotzen da. Izan ere, irakasleei karga handia egozten zaie eta eraldatzaileak izan behar hori eurengan soilik mugatzen da.

Hori dela-eta, hezkuntza formalak hezkuntza prozesuan eragiten duten beste agente batzuekin harremanean aritzea nahitaezkoa da. Familiarekin lanketak egitea, komunikabideak duten mezuak mugatzea edo astialdiko eragile anitzekin elkarlanean jardutea dira proposamen zehaztetako batzuk.

### • Hezkidetzak gizarte-politiketan garrantzia izatea

Hezkidetzak bermatzeko markoa eskaini dezaketen legeak badauden arren, genero-ikuspegia hezkuntzan nola txertatzen den aztertzea eta esku-hartzea gizarte-politiketako ildo nagusia izan beharko litzateke.

Horretarako autonomia mailan hezkidetzarako neurri zehatzak ezarri beharko litzatekeela uste da. Baita eskola guztietan hezkidetzak planak egitea ere. Horretarako, baliabide ekonomikoak sortzea eta proiektu ezberdinetan dirua inbertitzeko nahia ezinbestekoa da.

### • Kanpo espazioen eta material didaktikoaren azterketa eta birmoldaketa

Lehenik eta behin, proposatzen dena da ikastetxeek euren kanpo espazioen diseinua egin dezaten. Batez ere, espazio horiek berdintasuneko heziketa bat ematen duten jakin eta errealitatera hurbilpen bat egiteko. Zentzu honetan, espazioaren diseinua kirolean (eta futbolekoan bereziki) oinarrituta egoteak berdintasunerako ekar ditzakeen oztupoak neurtzea ere beharrezkoa ikusten da.

### • Espazio anitzetako parte-hartzea

Jarrera hezkidetzailleak izateko, lehen pausua fokua norberarengan jartzea da. Zeintzuk dira norbere baitan dauden jarrerak? Alda daitezke? Nola?

Norberak bere jarrerak zeintzuk diren hausnartzea eta horien gaineko gogoetak egitea oso garrantzitsua da. Horretarako gai hauei buruzko hitzaldi eta hausnarketa espazioetan parte hartzea ezinbestekoa da egiten dena zalantzan jartzeko eta beste pertsonekin ideia eta gatazkak partekatzeke.

Hezkuntzari buruz Euskal gazteriak dituen iritzi eta ezagutzak jaso nahi izan dira txosten honetan; izenburuak dioten moduan, lehen urratsak emateko. Bertan adierazitakoa ez da Euskal gazteriaren isla, baino bai berdintasuneko heziketa bat bermatzeko bide honetan interesa izan duten gazte horiek uste dutenaren zati bat. Asko dago egiteko, alde batetik parekidetasun formalaren eredua gainditu behar delako, eta bestetik, hezkuntza tresna funtsezkoa delako prozesu honetan.

## 7. APARTEKO MATERIALA

### ABIAN DAUDEN PROGRAMAK

IZENA	INFORMAZIOA
Beldur barik	<a href="https://bit.ly/2StGQIV">https://bit.ly/2StGQIV</a>
NAHIKO!	<a href="https://bit.ly/2GLB9up">https://bit.ly/2GLB9up</a>
UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza	<a href="https://bit.ly/2PiOCNw">https://bit.ly/2PiOCNw</a>
SKOLAE	<a href="https://bit.ly/2PkY9no">https://bit.ly/2PkY9no</a>
Gozamenez. Gazteria eta sexualitateari buruzko programa	<a href="https://bit.ly/2lnWNJG">https://bit.ly/2lnWNJG</a>
SEXUMUXU. DBHrako proposamen interaktiboa	<a href="https://bit.ly/2KWWfst">https://bit.ly/2KWWfst</a>

### MATERIAL DIDAKTIKOA

IZENA	INFORMAZIOA
Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi	<a href="https://bit.ly/2AMTsx8">https://bit.ly/2AMTsx8</a>
Hezkuntza hezkidetzaille oso baterantz	<a href="https://bit.ly/2rip8pV">https://bit.ly/2rip8pV</a>
Hizkuntza hezkidetzaille eta ez sexistarako gidak eta baliabideak	<a href="https://bit.ly/2ALVGwL">https://bit.ly/2ALVGwL</a>
Glosario feminista zeinu hizkuntzan eta idatzizkoan	<a href="https://bit.ly/2zOveTJ">https://bit.ly/2zOveTJ</a>
Ipuinak	<a href="https://bit.ly/2PgYabE">https://bit.ly/2PgYabE</a>
Mikromatxismoak	<a href="https://bit.ly/2zH3nEN">https://bit.ly/2zH3nEN</a>
Nola ekidin androzentrismoa	<a href="https://bit.ly/2U5z9Uq">https://bit.ly/2U5z9Uq</a>
“Emakumeen jakintzek gordetzen duten zientzia” gida didaktikoa	<a href="https://bit.ly/2U9Tkkd">https://bit.ly/2U9Tkkd</a>

### GIDAK

IZENA	INFORMAZIOA
Betaurreko moreak gida	<a href="https://bit.ly/2zFwdoR">https://bit.ly/2zFwdoR</a>
Hezkidetzak lau haizetara	<a href="https://bit.ly/2Qc8F5u">https://bit.ly/2Qc8F5u</a>
Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxeetan Hezkidetzak eta Genero-berdintasunaren Plana lantzeko gida	<a href="https://bit.ly/2BNTC93">https://bit.ly/2BNTC93</a>
Eskola hezkidetzaillearen azterketa eta ebaluaketarako jarraibideak	<a href="https://bit.ly/2SIBgBY">https://bit.ly/2SIBgBY</a>
Ikastetxean hezkidetzak-eredua egiteko gida	<a href="https://bit.ly/2zGONNH">https://bit.ly/2zGONNH</a>
Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak	<a href="https://bit.ly/2Q954ol">https://bit.ly/2Q954ol</a>
Cuaderno de actividades para trabajar la coeducación transversalmente	<a href="https://bit.ly/2Ed4os7">https://bit.ly/2Ed4os7</a>
Nola landu eta aukeratu hezkidetzarako materialak.	<a href="https://bit.ly/2ARoILD">https://bit.ly/2ARoILD</a>
Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?	<a href="https://bit.ly/2PjxMxZ">https://bit.ly/2PjxMxZ</a>

## WEBGUNE INTERESGARRIAK

IZENA	INFORMAZIOA
Hezkidetzan esku hartzen talde-bloga	<a href="https://bit.ly/2UfUIXO">https://bit.ly/2UfUIXO</a>
Berritzeguneko hezkidetzak guneak	<a href="https://sites.google.com/site/hezkidetzaplana/6_berritzeguneak">https://sites.google.com/site/hezkidetzaplana/6_berritzeguneak</a>
ezkuntza Saileko Hezkidetzari buruzko	<a href="https://bit.ly/2Q6qcfc">https://bit.ly/2Q6qcfc</a>
STEILAS	<a href="https://bit.ly/2zFKVMG">https://bit.ly/2zFKVMG</a>
Mujeres en Red	<a href="https://bit.ly/2Govgxj">https://bit.ly/2Govgxj</a>
ZUBIAK ERAIKITZEN HEZKIDETZA taldea	<a href="https://bit.ly/2zEoswn">https://bit.ly/2zEoswn</a>

## SARE SOZIALAK

IZENA	INFORMAZIOA
Twitter: Hezkidetzan Esku Hartzen	<a href="https://twitter.com/HezkEH">https://twitter.com/HezkEH</a>
Twitter: Zubiak Eraikitzen	<a href="https://twitter.com/ZERAIKITZEN">https://twitter.com/ZERAIKITZEN</a>
Facebook: Hezkidetzan Esku Hartzen	<a href="https://www.facebook.com/HezkEH/">https://www.facebook.com/HezkEH/</a>
Facebook: Hezkidetzarako Baliabideak Taldea	<a href="https://www.facebook.com/groups/678352378968052/">https://www.facebook.com/groups/678352378968052/</a>
Instagram: Hezkidetzan Esku Hartzen	<a href="https://www.instagram.com/hezkeh/?hl=eu">https://www.instagram.com/hezkeh/?hl=eu</a>

## 8. BIBLIOGRAFIA

**Aristizabal, Pilar. (2010).** *Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko irakasle eskolaren kasua.*

Ekainaren 22an berreskuratua, <https://addi.ehu.es/handle/10810/8138?show=full>

**Colás, Maria Pilar eta Buendia Leonor. (1995).** *Hezkuntzaren ikerkuntza.*

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo.

**EMAKUNDE. (2015).** *Nahiko! Programari dagozkion ikaskuntza gida: laburpena, ondorioak eta esperientzia pilotuak.*

Vitoria-Gasteiz: Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea.

**EMAKUNDE. (2005).** *Hezkidetza Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak.* Vitoria-Gasteiz: Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea.

**Eusko Jaurlaritza. (2015).** *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

**Eusko Jaurlaritza. (2003).** *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

**Alvarez- Uria, Amaia. (2014)** *Hezkidetza egoerari buruzko diagnosi azterlana Gasteizko ikastetxeetan(0-18).* Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala.

**Juaristi, Patxi. (2003).** *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak.*

Zarautz: EHUko argitalpen zerbitzua.

**SORKIN. (2017).** *Emakumeen jakintza gordetzen duen zientzia.*

2018ko uztailaren 15ean berreskuratua, [http://www.sorkinsaberes.org/sites/default/files/archivos/sorkin\\_emakumeen\\_jakintzak\\_gida\\_eus.pdf](http://www.sorkinsaberes.org/sites/default/files/archivos/sorkin_emakumeen_jakintzak_gida_eus.pdf)

# ERANSKINAK: HEZKIDETZAKO GALDETEGIA

## HEZKIDETZA/COEDUCACIÓN

- Ba al dakizu zer den hezkidetza?
  - o Bai
  - o Ez
- Hala balitz, nola definituko zenuke hezkidetza?
- Ezagutzen al duzu hezkidetza lantzen duen proiekturen bat?
  - o Bai
  - o Ez
- Hala izanez gero, esan zein proiektu ezagutzen dituzun.
- Hezkuntza sistema neska-mutil eta/edo femenino-masculino dikotomietan oinarrituta dagoela esango zenuke?
  - o Bai
  - o Ez
- Zergatik?
- Ezagutzen duzu hezkidetza bermatzeko legerik estatu mailan? Eta autonomia mailan?
- Hala balitz, aipatuko zenuke baten bat?

## IRAKASLEAK ETA ZUZENDARITZA

- Hezkidetza sustatzeko irakaslearen eta zuzendaritzaren jarduera ezinbestekoa dela uste al duzu? Zergatik?
- Esan zure ustez berdintasunean hezteko irakasleak kontuan hartu beharko lituzkeen faktoreak.
  - o Erabiltzen duen hizkuntza
  - o Ikasleengana zuzentzeko modua
  - o Prestatutako materialaren edukia
  - o FormakuntzaEmakumeen ekarpenak
  - o Beste bat:

- Zure ustez, berdintasunean oinarritutako hezkuntza bermatzeko, irakasleen inplikazioa beharrezkoa da?
  - o Bai
  - o Ez
- Inplikazio hori ematen al da?
- Irakasle eta zuzendaritzak berdintasunezko jarrera dutela esango zenuke?
  - o Bai
  - o Ez
- Zergatik?
- Irakasle eta zuzendaritzak jarrera berdinak dituzte neskekiko zein mutilekiko?
  - o Bai
  - o Ez
- Jarrera desberdinik balute, non ematen direla esango zenuke?
- Irakasleak gaiarekiko sentsibilizatuta daudela uste duzu?
  - o Bai
  - o Ez
- Irakasleriaren artean berdintasunarekin zerikusia duen formaziorik ematen dela esango al zenuke?
  - o Bai
  - o Ez
- Irakaslea izatekotan, nondik jaso izan duzu berdintasun prestakuntza?
  - o Berritzegune Nagusia
  - o Zonaldeko Berritzegunea
  - o Nahiko! programa
  - o Beldur Barik programa
  - o Eskolak antolatuta
  - o Elkarteren batek antolatuta
  - o IGEk antolatuta

## MATERIAL DIDAKTIKOA

- Material didaktikoetan, emakumeei dagozkien ekarpenak azaltzen al dira?
  - Bai
  - Ez
- Aipatuko zenuke libururik?
- Material didaktikoetan agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulinoen proportzioa egokitzen al da errealitatera?
  - Bai
  - Ez
- Material didaktikoetan agertzen diren pertsonaiek genero- estereotipoak dituzte?
  - Bai
  - Ez
- Baietz izatekotan, emango zenuke adibiderik?
- Emakume edo gizonezkoen gorputzen erabilera sexita egiten al da? Nola?
- Ikasgaietako material didaktikoetan, emakume eta gizonezkoen ereduak proportzioan islatzen al dira?
  - Bai
  - Ez
- Ezezkoa izatekotan, zein ikasgaitan ematen da emakume eta gizonezkoen ereduaren arteko desoreka?
- Aipatu itzazu zure ibilbide akademikoan nabarmendu diren emakume batzuk
- Emakumeek eginiko testuen irakurketarik egiten al da?
  - Bai
  - Ez



## ESPAZIOA

- Neskek eta mutilek duten jolastokien erabilera desberdina al da?
  - o Bai
  - o Ez
- Eskolako jolastokian eta jolasteko eremuetan espazioaren banaketa ematen al da?
  - o Bai
  - o Ez
- Nola eta zertan jolasten dute jolas orduan neska eta mutilek patioan?
- Zerk edo nork baldintzatzen du ikasleen patio jarduna?
- Espazio eta jolaserako ekipamenduak berritzaileak al dira?
  - o Bai
  - o Ez
- Non daude espazio zabalean neskak? Eta mutilak?
- Mutilak espazio zabalean eta neskak bazterrean egon ohi direla uste duzu?
- Zergatik?
- Espazioaren kudeaketak boterea eman dezake?
  - o Bai
  - o Ez
- Gaur egun ditugun kanpo espazioek erantzuten diote ikasleen beharrei?
  - o Bai
  - o Ez
- Zer egin daiteke horren aurrean?
- Gai honen gainean ikertu edo hausnartu dela uste duzu?
  - o Bai
  - o Ez


## HEZKIDETZA ETAPA EZBERDINETAN

- Hezkuntzako etapa guztietan hezkidetzak berdin bermatzen dela uste al duzu?
  - Bai
  - Ez
- Adierazi non dauden hutsune nabarmenenak zure ustez:
  - Haur Hezkuntza
  - Lehen Hezkuntza
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
  - Batxilergoa
  - Lanbide Heziketa
  - Unibertsitateko Irakaskuntza
- Zein izan da hezkuntza sistemako etapa hori aukeratzearen arrazoia?

## ESKAERA ETA PROPOSAMENAK

- Nahikoak al dira egun dauden programa eta proiektuak hezkidetzak lortzeko?
  - Bai/Sí
  - Ez/No
- Orokorrean, berdintasunean oinarritutako hezkuntza bermatzeko zein pausu emango zenituzke?
- Non ikusten duzu premiarik bereziena?





Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

[www.egk.eus](http://www.egk.eus)

Ramiro de Maeztu 15, behea  
Gasteiz

Autonomía 44, behea  
Bilbo

Andia 11, 1.  
Donostia